

AURKEZPENAK

AITA ARANAREN EGUNARIA AURKEZTEAN

Donostiako Foru-Aldundian. 2000-II-24

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Euskaltzainkideak,

Jaun-Andereak agur.

Gertakari latz baten ondotik eta hala erabakia izan delakotz ez dago gure artean Roman Sudupe jauna, Gipuzkoako diputatu nagusia. Nahi dizkiot, Aita Aranaren egunaria aurkeztean, eskerrak bihurtu, alde batetik areto nagusi hau utzi digulakotz eta bertetik Gipuzkoako Foru Aldundiak diru-laguntza eman duelakotz Kutxa Fundazioa eta Deustuko Unibertsitatearekin batera liburuaren agertzeko.

Iker bilduman sartzen da Aita Aranaren *Egunaria*, hamabigarren liburukia delarik.

Paratzailea Aita Patxi Altuna euskaltzaina eta Euskaltzaindiko Gramatika batzordeburua.

Aranaren esku-izkribuak 1300 orrialde ditu, xeheki idatziak orrialde batzuen argazkiek erakusten duten bezala. Ez zen ez herabe eta ez beldurti izan behar holako esku-izkribu batean sartzeko.

Bainan beharrezkoa zen holako batean murgiltzea, jakinik nor izan zen Aita Arana, nolako bizia eraman zuen, kurutzatu eta harremanak ukan euskaldun eta euskaltzale ospetsuekin hala nola Antoine d'Abbadie, Resurrección María de Azkue, Sabino Arana Goiri. Aita Aranarekin daukagu XIX. mendeko lekuko bat, zinez interesgarria hobeki ezagutzeko Euskal Herriaren orduko historia.

Lotu zaio lanari Patxi Altuna eta erakutsi baitu jadanik zein zehazki eta zorrozki jokatzen zen argitaratu duelarik -etsenplu baten hartzeko- Detxepareren *Linguae vasconum primitiae*-ren edizio kritikoa Euskararen lekukoak deritzan bilduman, ez da dudarik Aita Aranaren *Egunariak* eskainiko dizkigula segetu guziak Patxi Altunaren lanari esker.

Hala nola eskertu dudan Gipuzkoako Foru-Aldundia, eskertuko ditut ere Kutxa Fundazioa eta Rosa Miren Pagola anderea, euskararen errektore ordea, Deustuko Unibertsitatearen izenean gero mintzatuko dena, liburu honen argitaratzeko eman duten diru-laguntzaren gatik.

Ene azken hitzak izanen dira zorionik bizienez eskaintzeko Patxi Altuna euskaltzainkideari, liburu gotor horrekin egin baitigu opari ederra. Mila esker.

EGUNARIA LIBURUKIAREN AURKEZPENA

Donostia, 2000-II-24

Patxi Altuna


Ene aurretik, hitza hartu dutenek, esan dute jadanik Aita Jose Inazio Arana (1838-1896) esan behar zen gehiena eta hoberena: apaiz langilea, euskaltzale porrokatua, olerkigile txairoa eta lagun askoren lagun zintzoa izan zela. Hori batez ere. Ehunka izan zituela esango banu, ehunka karta idatzi eta hartu zituela esango banu, ez dut uste huts luzea izango litzatekeenik. Bego esenplu bakarra: D'abbadiak eta biek elkarri laurogei eskutitz baino gehiago egin zizkioten, eta hark Arana behin lehendabizi Loiolan eta Aranak hura gero hiru bider Iparraldeko Jauregi zorregarrian elkar bisitatu zuten eta pianoa jotzen aritu Aita Arana D'Abbadieren emaztearekin. Horri kanpotarren artean, etxe-koak isiltzeko, Bonaparte, Van Eys, Georges Phillips, Duvoisin, Dodgson, Intrauspe, Vinson etab. erantsi beharko litzazkioke.

Ez dugu euskal literaturan, nik dakidala, *Egunkaria* deritzan saileko liburu asko. Batere bai? Nik dakarkizuedana halako bat da, idazteko gai izan zenetik hasi (lehenagoko etxeko kontuak ere barne) eta ia hil zen arte Aita Aranak zehazki oratua. Orain dela ehuneta berrogeitamar urte, alegia. Eskuz idatzia, zer esanik ez, eskuizkribu lodikotea, Loiolako artxiboan urte guztio-tan gordea egon dena, inor ausartu ez delarik paper sorta handi hari eskua eransten.

Nik zer lan egin behar izan dudan? Eskuizkribuak dituen mila eta hirurehun horialdeetatik lehenengo erdiak hortxe-hortxe gazteleraz idatziak daude. Artean, euskal kontzientzia garbirik ez zuen seinale. Horiek guztiak euskaraztea izan da ene lehen lana. Horretarako orijinalaz baliatu behar izan dut, noski. Hura irakurtzeak berak lanak zituen. Har zazue gogoan nolakoa zen orduko papera: mehea, Biblia-paperearen antzekoa, letra alde batetik bestera aise igarotzen zaiona. Horri eransten badiozue Aita Aranak letra txiki-txikia zuela, 94.-95. orrialdeetan orijinalaren bi fotokopiatuak ikus ditzakezuen bezala, sinetsiko duzue hainbeste orrialde irakurtzen asmatzeak bakarrik egun, aste eta are urte zenbaitetako lana ezarri didala. Bigarren erdia -730 orrialde- euskaraz idatzia dago, baina ez euskara batuan, baizik joan zen mendearen azken urteetako euskara jasoan, eta nik, zer esanik ez, euskara batuan eman dut osoa.

AITA ARANAREN EGUNARIA
DIARIO DEL PADRE ARANA
JOURNAL DU PÈRE ARANA

AITA ARANAREN EGUNARIA
DIARIO DEL PADRE ARANA
JOURNAL DU PÈRE ARANA



AITA ARANAREN EGUNARIA
DIARIO DEL PADRE ARANA
JOURNAL DU PÈRE ARANA

AITA ARANAREN EGUNARIA
DIARIO DEL PADRE ARANA
JOURNAL DU PÈRE ARANA

iker - 12

Itzulpena da, hortaz, zuk dakarkiguzun lana? Bai eta ez. Baia argitu beharrik ez dizuet. Eza, bai. Izan ere, Aita Aranaren asmoa ez zen izan testu-*egunkari*- Literario, dotore, apain bat egitea, baizik goizean ohetik jaikitzen zenetik arratsean oheratu arte bere inguruan gertatzen ziren, eta urrutian gertatzen zirela jakiten zuen gauza guztien berri ematea. Baina punturik txikiak ere barne zirela: “halako orduan jaiki naiz, gero otoitz egin dut, gero meza eman, gero gosaldu” etab., etab. eta, jakina, hogeigarren eta hogeitabargarren mendeko gizon-emakumeei xehetasun horiek bost axola zaizkie. Hori guztia galbahe batetik pasarazi behar zen eta gertari interesgarrienak kontatera moduan idatziak eskaini gaurko idazleari.

Gehiegi luzatzen ari naiz. Diodan bukatzeko horretaz gainera astia izan zuela San Inazioaren eta Antxieta Brasilgo misiolari handiaren bizitzak idazteko, bai eta *Loiolako oroimenak* izeneko liburuxka egiteko ere. Horrez gain, ehundik gora olerki egin zituen, gehienak ezinbestean erlijio gaikoak, batzuk haatik pertsonaia ospetsuen, euskaldunen batez ere, gorespenez. Ez dira balio gutxienekoak, nahiz ez euskarazkoak izan, euskal Metrikari buruz idatzi zituenak: *Arte métrica bascongada*, *Fontes*-en 1992 an argitaratu nuena, eta Ensayo de una *Bibliografía Bascongada*, 1363 fitxa dituen eta R. M. Azkue bibliotekan Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan dagoena.

Ez zuen arrazoi falta Aita Villasantek bere Euskal Literaturaren Historian idatzi zuenean: “Fue sin duda de los más profundos conocedores de la literatura y bibliografía vascas... Uno de los vascófilos más sabios e ilustres que florecieron” (p. 284).

AITA ARANAREN EGUNARIA LIBURUAREN EPILOGOAZ

Donostia, 2000-II-24

Jose Antonio Arana Martija

Gaur aurkezten den liburu honentzat azken hitzak eskatu zizkidan Patxi Altuna egileak, eta pozik eta ohorez hartu nuen eskaria, liburuaren edukia ikusita eta eskatutako lana burutzeko egin nituen ikerketak zirela eta, gizon hau maitatzen eta miresten hasi bainintzen duela bospasei urte. Aspaldidanik eza-gutzen nituen idazlan baliotsu batzuk, Euskaltzaindiaren artxiboan daudenak, Azkuerekin gurutzatu zituen gutunak, esate baterako; baina bereziki han gordetzen den Euskal Bibliografiaren eskuizkribua, datu zehatzez bete. Azkoitiko udalak eta Euskaltzaindiak Jose Inazio Aranaren heriotzaren mendeurrena zela –eta, bere jaioterrian 1996.eko abenduaren 20an ospatu zuten omenaldian Arana jesuita bibliografo ikuspegitik aztertu nuen (*Euskera*, 1997) eta aurkezten den liburu honen originala irakurri ondoren, bizitza aberatsaren beste arlo batzuk ere hor zeudela eta, ikerketarako gaia zabalik zegoela ikusi nuen.

Idazle, olerkari, historialari, bibliografo, fisikan eta astronomian aditua zela ikusten da liburu honetan. Patxi Altunak paratu duen testuan mamitu ditu Aranak bere *Egunarian* ematen dizkigu datuak, biografia osotzen dutenak. Badirudi aita Aranak bere kolkorako idatzi zuela biografia, memoria idatzi gordetzeko asmoz; eta Altunak burutu duena hau da: ikerketa eta idazlan xehe, sakon eta eskergarrian haiekin ehule lana burutu, eta oihal gozoa eman. Bi jesuiten-lanak XIX. mendeko euskal literaturaren ikuspegi zabal bat ematen digute baina ez literaturarena bakarrik, baita beste euskal kulturako lekukotasunak ere.

Iker sailean kaleratu du Euskaltzaindiak liburu hau, aita Arana pertsonaiaren inguruan gure historiako hainbat datu elkar-josten direlako. Lehendik ere izan dira liburu sail honetan antzekoak: gogora dezagun Charritonek prestatu zuena, Azkue-Broussain euskaltzainen gutundegiarekin. Sarri askotan, argitaratzeko idazten ez direnak, balio handia dute puzzle bat osatzeko eta ekin-tza asko gauzatzeko gogoeta eragingarriak ezagutzeko. Argitara gabeko barne historia pertsonalak iluntasunean argia egiten du. Eta ikerketarako ildo nagusiak markatzen ditu. Beraz, hortik datorkigu halako lanen garrantzia.

Gehitu behar dudan bakarra da aita Aranaren olerkik eman didatela aukera zeintzuk diren herri kanten euskarriak aztertzeko. Hamalau dira gutxienez herri kantak direlako, aita Aranaren testua daramatenak. Eta hauen azterketa izan da nire epilogoaren gaia. Esta han diodanez, ez dira hauek Jose Inazio Aranari eskainiko dizkiogun azken hitzak. Hala biz.

AITA ARANAREN EGUNARIA LIBURUAREN AURKEZPENEAN

Donostia, 2000-II-24

*Rosa Miren Pagola,
Deustuko Unibertsitateko ordezkaria*

Aurrekoen oroitzapena gelditu zaizkigun haien egintzetan oinarritzen dugu. Halere, bizitzan ez dira horiek izaten, nahi ala nahi ez, garrantzitsuenak, eguneroko lana askoz ere eraginkorragoa gerta baitaiteke egiten den unean eta gerora, beti ere neurtzeko zaila gertatzen bada ere.

Aita Aranaren kasua horietakoa da: euskaraz idatzi eta euskarara itzuli ziotuen lanengatik aipatzen badugu ere gure artean, haren lanik haundiena egunerokoa izan zen eta lan haren ondorioak euskararen eta, agian, Euskal Herrian zenbaterainokoak eta noiz artekoak diren jakitea gure esku ez dagoen arren, begirada zoliz aztertuz gero, egiaz luzeak eta zabalak izan direla antzemango genioke.

Gaurko ekintza honetan, zorionez eta Aita Altunari esker, nolarebait alderdi horiek biak batzen dira, Aita Aranaren idazki baten argitalpenaren aurkezpena delako eta, bide batez, idazki hori haren egunkariarena delako, haren eguneroko lan eta harremanen kontakizunarena, alegia.

Egunaria deitu zion Aita Aranak berak bere egunkariari eta horrela argitaratu du Aita Altunak. Atseginez irakurtzen den liburua paratu du, baina kontuz irakurtzekoa ere bada, pertsona bakar baten eguneroko zertzeladez gain, Euskal Herriaren etorkizunerako garai garrantzitsu gertatuko zen historia bizi baita lerro horietan. Aita Aranak lan haundia egin zuen bere garaiari euskara bultzatzen Jesusen Lagundian eta handik kanpo ere. Ezin izango du inork ukatu haren eragina luzea eta zabala izan zela eta, beraz, haren *Egunariak* gauza asko argituko dituela garaiko eta, batipat, Jesusen Lagundiko egoerari eta pertsonen buruz.

Horrenbestez, Deustuko Unibertsitateak ez zuen zalantza apurririk izan lan hau argitaratzeko partaidetza eskatu eta eskaini zitzaionean; eta nire kasuan ere berdin, atsegirik haundiena baitut ekitaldi honetan parte hartzeko aukera dudalako.

Egunaria, bestalde, idazmolde irakurgarria da berez. Beste balioez gain, eguneroko gertakizunen kontaketak ezartzen dion bizitasuna eta xarma izan ohi du. Gainera, nik dakidala behinik-behir, euskal letretan ez dago egunkari askorik idatzirik eta, agian, batere ez argitaraturik. Hutsune hori Aita Aranaren *Egunariaren* argitalpen honek bete du.

Aita Altunak prestatua, ordea. Horrek bermetasunik tinkoena eskaintzen dio argitalpenari. Aita Altunaren lanak ezagutzen dituenak badaki ongi zein zehatza eta zorrotza den bere lan guztietan, eta zein zoru sendoa zapaltzen duen edukiaren, hizkuntzaren eta zintzotasun zientifikoaren aldetik. Bestalde, Aita Altunak, besteenak beste, jesuita askoren lanak argitaratu eta aztertu ditu, denak ongi, txairo, atsegin eta aberats. Kasu honetan ere ezaugarri horiek horixe dira, eta gustua izanen dugu irakurriz, bide batez Loiola inguruko garai desberdineko bi seme eta josulagunen idazkerak ere erkatu ahal izanen ditugularik.

“Prestatzilea” dio liburuan, baina hitzak eskuizkribuaren argitalpen hutsa baino zertxobait gehiago esan nahi du kasu honetan. Aita Aranek lehen parte luze bat gaztelaniaz idatzi zuenez, Aita Altunak testu hura euskaratu ezezik, kontaera gisa moldatu du, eta, esan bezala, liburuan bion estiloak eta hizkuntza erabilerak aurki ditzakegu, eta, gainera, kontaera eta *Egunaria* liburu berean. Alderdi askotatik da, beraz, interesgarria lan hau.

Zorionak eta eskerrik zintzoenak, Aita Altuna, lagunentzat Patxi, egin duzun lanagatik argitalpen hau prestatzen, eta eskerrak argitaratzeko lagundu duenei ere, batez ere Euskaltzaindiari Iker sailean sartu duelako; izan ere, ekarri bikaina da eta aztertu beharrekoa euskararen eta euskaldunon joan zen mende bukaerako historia hobeki ezagutu nahi bada. Besterik gabe, agur hona azaldu zareten denoi.